



2011KO MARTXOAREN 17KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako martxoaren hamazazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio eta Iñaki Saldaña Herrero.

Xabier Arrasate Aierbe, Ángel Hernández Marzal eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- KIROLDEGIAREN ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA LANEN 5. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Arkitektura Oztupoak Kentzea lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen bosgarren obra-egiaztagiria luzatu dute. Bosgarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa BERREHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BI EURO eta HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOtakoa (261.322,78 €) da. Lan hauek Construcciones Artzamendi, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Arkitektura Oztupoak Kentzea lanen laugarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

II.- KIROLDEGIAREN BIRMOLDAKETA 4. FASEA LANEN 2. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek 4. faseko bigarren obra-egiaztagiria luzatu dute. 4. faseko bigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa HOGEI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMAHAZPI ZENTIMOtakoa (20.588,37 €) da. Lan hauek INGESLAN, S.L.U. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen 4. faseko bigarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.



III.- 1 H.J.A.KO -C.A.F.- URBANIZAZIOAREN LEHEN FASEAREN LANEN ESLEIPENA.-

"1 H.J.A.ko -C.A.F.- urbanizazio obrak, 1. fasea" proiektuko lanak burutzea prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzeko izapidatutako kontratazio espedientea zein egoera prozedimentaletan dagoen ikusirik.

Horretarako irekitako baliozko epearen barruan honako proposamenak aurkeztu direla kontutan izanda:

- PROBISA, Vías y Obras, S.L.U.
- URBYCOLAN, S.L.
- CONS. ECHAIDE, S.A.
- CONS. MOYUA, S.L.
- CONS. HUGAR, S.L.
- CONS. TRATRI, S.L.
- BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.
- KAKUETA, S.L.
- CONS. ITURRIOZ, S.A.
- EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.
- CONS. GALDIANO, S.A.
- CONS. AMENABAR, S.A.
- ALTUNA Y URIA, S.A.
- UTE DC - IC
- CAMPEZO CONSTRUCCIONES Y SERVICIOS
- BARDERA OBRAS CIVILES Y MARÍTIMAS, S.L.
- CONS. ERGA, S.L.
- OTEGI GAZTAÑAGA
- ANTZIBAR, S.A.
- ANTIA, S.L.
- PEDRO IPARRAGUIRRE, S.L.
- CONS. Y SERV. GORBELAN, S.A.
- SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.
- EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI, S.A.
- UTE DE DIEGO - ZORROZA

Ikusirik proposatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, proposatzaile guztiak izan direla onartuak.

Ikusirik proposamen tekniko guztiak baloratuta eta eskeintza ekonomikoaren eta berme epearen balorazioa gehitu ondoren, puntu gehien jasotzen dituen eskeintza Altuna y Uria, S.A. enpresak aurkeztutakoa dela.

Ikusirik Altuna y Uria, S.A. enpresaren eskeintzan balore arraro edo desproporzionatuak kontsidera daitezkeenak ikusi direla eta entzutealdi tramitea eman ondoren, eta enpresak ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren, zerbitzu teknikoek bere txostena egin dutela eta honen aurrean kontratazio mahaiak Altuna y Uria, S.A. ren eskeintza ez dela bideragarria ondorioztatu duela.



Baliozkotzat jotakoen artetik eta udalarentzat abantailatsuena izateagatik, Kontratazio Mahaiak kontratuaren esleipena 9 zbk.dun proposamenaren egilea den CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.ren alde egitea proposatzen duela kontutan izanda.

Kontutan izanda Construcciones Iturrioz, S.A.ri hamar laneguneko epean behinbetiko bermea jar zezan, hala nola, Baldintza Administrazioen Pleguko hamaseigarren klausulan adierazten den dokumentazioa, aipaturiko dokumentazioaren ekarpena egin ez bada, ekar zezan errekerimendua egin zitzaiola.

Kontutan izanda Construcciones Iturrioz, S.A. eskatutakoak egin dituela.

Osoko Bilkurak, guzti honen aurrean, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Altuna y Uria, S.A.ren eskeintzan balore arraro eta de desproporzionatuak kontsidera daitezkeenak dituela aitortzea.

Bigarrena.- "1 H.J.A.ko -C.A.F.- urbanizazio obrak, 1. fasea" obraren lanak burutzeko lehiaketara aurkeztutako Udalarentzat proposamenik abantailatsuena CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.-enpresak aurkeztutakoa dela jotzea, BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (567.524,39 €), B.E.Z. barne,-ko prezioan, eta ondorioz lanen egikaritzea CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A. ri esleitzea.

Hirugarrena.- Akordio honen jakinarazpena lehiaketara proposamena aurkeztu duten guztiei egitea eta halaber kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena.- CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.-ri, akordio honen jakinarazpena jasotzen duenetik kontatzen hasitako hamabost lan-eguneko epean kontratua izenpetzera etor dadin errekerimendua egitea.

IV.- ELOSEGI KALEAN BIDEGORRIA EGITEKO BEHARREZKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDAREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN AURKAKO BIRJARPEN ERREKURTSOA.-

Iñigo De Arteaga y Martin Jaunak berraztertze errekurtsua aurkeztu du "Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleak urbanizatzeko obrak eta hiri bilbean bidegorria-oinetzkoentzako bidea txertatzeko proiektuari" buruz 2011ko otsailaren 10eko udal osoko bilkurak hartutako akordioaren aurka.

Berraztertze errekurtsu honen aurrean zerbitzu teknikoek egindako txostenak honela dio:

Aurrekariak.-

1.- "HIRIBARREN, ELOSEGI ETA HIRIGOIEN KALEAK URBANIZATZEKO OBREN ETA BIDEGORRIA-OINEZKOENTZAKO BIDEA HIRI BILBEAN TXERTATZEKO PROIEKTUA"ri dago-kionean, Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak 2011ko otsailaren 10ean hartutako akordio bidez, honako alderdi hauek xedatu ziren bertan:



- De Arteaga jaunak proiektuari eta proiektua garatzeko nahitaez bete beharreko ondasun eta eskubideen zerrendari aurkeztutako alegazioak atzera botatzea.
- Aipatutako zerrenda behin betiko onartzea, eta
- Eragindako ondasunak eta eskubideak berehala betetzeko ondasun eta eskubide-tzat jotzea.

2.- Aipatutako akordioa 2011ko otsailaren 15ean jakinarazi zitzaion De Arteaga jaunari, bere semearen bitartez.

3.- 2011-03-04an De Arteaga jaunak berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen aipatutako akordioaren kontra. Errekurtso horren edukiak jarraian aztertu eta erantzungo dira, bata bestearen atzetik.

Errekurtsoaren argudioen azterketa.-

1.- Lehenik eta behin, akordioaren erabat eta berezko baliogabetasuna eskatzen da, legeak ezartzen duen prozedura bete ez delako. Honako arrazoi hauek daude argudioaren oinarrian:

a).- Elegilearen ustez, hartutako ebazpenak ez du justifikatzen betetzea egiteko beharra, eta proiektua espazio publikoan egin daitekeela gaineratzen du. Horrezaz gainera, proiektuak monumentu-multzo ezagun bat eragiten duela erantsi da.

Azterketarekin hasteko, zera esango dugu: proiektuaren eta ondasun eta eskubideen zerrendaren hasierako onarpena eman zuen 2010-12-23ko akordioa hartu eta gero De Arteaga jaunak aurkeztutako idatzian barne hartutako argudioetan, proiektuan adierazitako azalera betetzeko beharrik ez zegoela aipatzen zuen, izan ere, gaur egungo espaloiarekin eta bidearekin "*... bidegorria egiteko espazio nahikoa dago, hortaz, aurreikusitako ibilbidea aldatu beharko da eta espazio publikoetan gauzatu, jabetza pribatuak eragin gabe.*"

Alegazioaren atal horren gainean elegileak 2011-02-04ko txostenean egiten zuen azterketan jada adierazten zen De Arteaga jaunaren kontrako jarrerak izaera generikoa zuela eta ez zela arrazoi teknikorik ematen.

Hala ere, berrezartze-errekurtsoan arrazoiketa generikoa egiten da berriro, baina 2011-02-04an proiektua idatzi duten arkitektoek luzatutako txostenean, administrazio-espeditentean barne hartzen denean, eragindako azalera betetzeko arrazoi teknikoak justifikatzen dira.

Proiektuak monumentu-multzoaren zati bat eragiten duela esaten du De Arteaga jaunak, eta, zentzu horretan, zera adierazi behar da: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko titularrak 2011-01-28an emandako Foru Agindu bidez –espedientean barne hartuta dago Foru Agindu hori-, behin eta berriro aipatzen ari garen proiektuaren gauzatzea baimendu zen, baina berau gauzatzeko aurreikuspen batzuk hartu behar ziren kontuan. Gauzak horrela, ondare historiko-artistikoaren alorrean eskumenak dituen arloko organoak proiektua gauzatzeko luzatutako baimena ere lortu da.

Ondorioz, argudio horretan aipatzen diren bi alderdiak ez dira aintzat hartuko.



b).- Bigarrenik, elegileak 2011-02-10eko akordioaren erabat eta berezko balio gabetasuna azpimarratzen du berriro, eta Nahitaezko Desjabetzearen Araudiko 9. eta 10. artikulua urratu direla dio, bai eta Konstituzioko 33. artikulua ere, ez baita aitortu proiektuaren erabilgarritasun publikoa eta gizarte-interesa.

Argudio hori ere ez da aintzat hartuko.

Hain zuzen, 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen, apirilaren 18koa eta tokiko araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bategina onartzeko denaren 94. artikulua adierazten duenez, tokiko obra eta zerbitzuen planetan barne hartutako obrak erabilgarritasun publikoko obratzat aitortuko dira eta bertan barne hartutako lursailak eta eraikinak bete beharko dira, nahitaezko desjabetzea egiteko.

Xede dugun proiektua Lazkaoko Udaleko 2011ko ekitaldiko Tokiko Obren Planean dago barne hartuta, proiektuaren memorian adierazten den moduan, eta 2011-10-28an onartutako udal aurrekontuan barne hartuta dago, halaber.

c).- Hirugarren atalean Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 21. artikulua urratzen dela aipatzen da, betetzearen akordioa ez delako Aldizkarian argitaratu eta ez zaiolako pertsonalki jakinarazi interesdunari, baizik eta bere semeari.

Argitalpenari dagokionez, xede dugun iragarkia 2011-02-23an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (36. zk.). Jakinarazpenari dagokionez, eta elegileak aitortzen duen moduan, bere semea den Iñigo de Arteaga del Alcazar jaunari egin zitzaion jakinarazpena eta berak, jasotzean, "ahalorde" gisa egin zuen, jakinarazpenean bertan adierazten den moduan.

Edozein modutan, elegileak ez ditu ondo interpretatu Udal Administrazioak akordioaren jakinarazpenaren atalean aipatzen diren eta bete behar dituen baldintza formalak.

Hain zuzen, lehenik eta behin NDLen 21. artikulua ez delako xedatzen jakinarazpena "pertsonalki" egin behar denik, De Arteaga jaunak bere errekurtsioan behin eta berriro esaten duen moduan, baizik eta desjabetze-espeditentean interesdun gisa agertzen diren pertsonen jakinarazpen "banakakoa" egin behar zaiela esaten du. Ildo horretan, jurisprudentziak behin eta berriro egindako adierazpenetan -besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1997-02-17ko epaian eta 1998ko otsailaren 11ko eta 25eko epaiekin- ez da esaten jakinarazpena zuzenean interesdunari egin behar zaionik derrigorrez, izan ere, legeak ezartzen duen edozein pertsona izan daiteke jakinarazpenaren hartzaile, eta horrek ez ditu murrizten administratuaren bermeak.

Zentzu horretan, elegilearen semeari egin zaio jakinarazpena -De Arteaga jaunaren "ahalorde" gisa identifikatzen du bere burua idatziz- hortaz, ez da akatsik egon jakinarazpena egitean.

d).- Laugarren atalean Nahitaezko Desjabetzearen Araudiko 56. artikulua urratu dela aipatzen da, lehenbailehen betetzeko beharra justifikatuta ez dagoela esatean.

Argudio hori ere ez da kontuan hartzekoa, izan ere, Alkatetzaren Memoriaren espeditentean, 2011-02-05ean egindakoan, NDLen 52. artikulua araututako salbuespenezko pro-



zeduraren arrazoiak aipatzen dira eta Osoko Bilkurari eskatzen zaio hori guztia kontuan hartuta hartzeko akordioa.

e).- Beste atal batean ekainaren 30eko EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 178. artikulua urratzen dela aipatzen da, Lazkaoko Udalak ez baitu eskumenik premiazko betetzearen deklarazioa emateko.

Desjabetze-espedienteetan premiazko deklarazioa arautzeko aurreikuspena Auzitegi Konstituzionalak martxoaren 20an emandako 61/1997 epaian aztertu zen jada, ekainaren 26ko 1/1992 Errege Dekretu Legegileak onartutako Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Araubidearen buruzko Legearen Testu Bateginaren aurrean proposatutako konstituzionaltasunik eza dela-eta aurkeztutako errekurtsioei erantzuteko.

Zehazki, Kataluniako Generalitateak 1992ko TRLSko 220.1 artikulurako xedatzen zen erabateko ezarpenaren kontra egin zuen. Artikulu horren arabera, desjabetze-jarduera batek eragindako ondasunak eta eskubideak berehala betetzeko tasazio bateratuko prozedura bidez onartu behar zen proiektua. Zentzu horretan, Goi Auzitegiak honakoa xedatu zuen *"Estatuak eskumen orokorra du nahitaezko desjabetzearen gainean eta ez da oinarrizkora bakarrik mugatzen (148.1.18. art. EB) eta desjabetze-bermeak zehazteko beharra barne hartzen da. Hala ere, horrek ez du esan nahi edozein desjabetzeren aurrean eta antolamenduko sektore guztietan erakundearen inguruko berme guztiak xehetasunez ezarri eta aurreikusi ditzakeenik, gehiago edo gutxiago izan (oraingoan gutxiago). Desjabetze orokorra arautzeko eskumenaz haraindi, Estatuko legegileak kontuan hartu behar ditu kasuan-kasuan arloko eskumen-tituluak, eta horren arabera egingo da desjabetzea. Hori dela-eta, dagokion sektorearen eskumena autonomikoa denean, desjabetze berezien berezitasunak izaera nagusiarekin edo gutxienekoarekin ezarri ahal izango dira bakarrik, eta prozedura-berme orokorrak direnean. Beste modu batera esanda, desjabetze bereziaren prozedura arautzeko orduan administrazio-prozeduraren eskumenen banaketari buruzko doktrina aplikatu daiteke, neurri handi batean, hau da, eskumen osagarri bat da, eskumen material edo substantiboaren ondorengoa, eta Estatuak ezarriko duen desjabetze-prozedura orokorraren arau orokorrak errespetatu behar ditu, baina kontuan hartuta ezin zaiola ukatu prozedura-arau orokorrak adierazteko edo modulatzeko arau bereziren bat ezartzeko aukera.*

Gauzak horrela, Estatuaren eskumeneko *"arau orokorrak"*, desjabetze-prozedura izapide arruntan bidez edo premiazko prozeduraren bidez izapidetzeko aukera bikoitza arautzen duten arauak dira. Hala ere, Auzitegi Konstituzionalak esandakoaren arabera, premiazko betetzea agintzea nori dagokion erabakitzea ez da desjabetze-bermeen atalean oinarrizkoa edo bertan barne hartu beharrekoa, baizik eta prozedurarekin lotuta dago. Kasu honetan, autonomia-erkidegoei dagokie eta EAERI dagokionez, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluan ezarri da Udalei eta Foru Aldundiei dagokiela, desjabetzea egiten duten administrazioak beraiek direnean.

Ondorioz, aipatutako artikulua egiten duen aurreikuspenaren arabera, Lazkaoko Udalak egindako esku-hartzea bat dator zuzenbidearekin, hortaz, gai honen inguruan aurkeztutako argudioa ez da kontuan hartuko.

2.- Amaitzeko, eta ez errekurtsioaren argudio gisa, baizik eta eskaera gehigarri gisa, 30/1993 Legearen, azaroaren 26koa eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa denaren 111. artikuluan xedatutakoaren ba-



bespean hartutako akordioa bertan behera uzteko eskatzen da, izan ere, elegilearen ustez horrela egin behar da, erabat eta berezko baliogabetasuna alegatu baita.

Azken alderdi horren azterketari helduta, De Arteaga jaunak 111. artikulua gaizki interpretatu duela esan behar da, eta baliogabetasunaren alegazioak, bertan behera uzteko eskaerarekin batera, ez du derrigortzen ebazpena emateko eskumena duen organoak bertan behera uztera.

Hain zuzen, bertan behera uzteko eskaerei dagokienez, 111. artikuluan xedatzen denez, errekurtsioa ebazteko ardura duen organoak egintza bertan behera **utzi dezake, baina ez du derrigorrez egin behar**, bertan behera uzteak interes publikoari edo hirugarreni eragingo dien kaltearen eta errekurritu den egintza berehala gauzatzeak elegileari eragiten dion kaltearen arteko haztapan arrazoitua egin eta gero, baldin eta egintzak kalte konponezinak edo konpontzeko zailak eragiten baditu edo kontra-egiteak erabat eta berezko baliogabetasun-arrazoietakoa bat badu oinarrian. Ondorioz, egintza bertan behera uztea ez da eskaera aurkeztu eta automatikoki egingo, baizik eta egoera aztertu ondoren horrela erabakitzen bada egingo da.

Aurreko ataletan aztertu dira erabat eta berezko baliogabetasun-auziaren inguruko argudioak, eta horrelakorik ez dagoela ondorioztatu da, hortaz, ez dago arrazoirik aipatutako argudioa oinarrian hartuta egintza baliogabetzeko.

Kalte konponezinei edo konpontzeko zailak dagokienez, elegileak honakoa adierazi du laburki: *"kalte handia eragingo litzateke elegileari, Infantado Jauregiari eta udalerriko eta Euskal Autonomia Erkidegoko kultur ondareari"*, bertan behera uzten ez bada.

Kultur ondarearen gaineko eraginei dagokienez, eta lehen esandakoa gogora ekarriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, esparruan eskumena duen organoak, proiektuari buruz emandako aldeko txostena barne hartuta dago espedientean, hortaz, eskaerak indarra galtzen du. Elegilearen eta Infantado Jauregiaren gaineko kalteei dagokienez, lehen ere aipatu den moduan, aipamen generiko bat egiten da soilik, azalpen gehiago eman gabe.

Horrenbestez, HAAJAPEn 111. artikulua arabera egin beharreko haztapenean, eta elegileak zehaztapan gehiago egin ez duela kontuan hartuta, errekurtsioa aurkeztu den akordioaren gauzatzea bertan behera uztean interes orokorraren gainean eragiten diren kalteak bakarrik baloratu behar dira.

Adierazitako hurrenkeran, eta desjabetze-espedienteak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda barne hartzen duen memorian adierazten den moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Orokorrak, "Gipuzkoako bidegorri-sarearen Planaren" barruan eta, zehazkiago, Donostia-Beasain 3. adarraren barruan, Beasain eta Lazkao udalerrien konexioa aurreikusi du, eta Atauneraino luzatzea, Lazkaoko herritik barrutik, eta xede horrekin ari da gauzatzen *"Beasain-Lazkao bidegorria-oinetzkoentzako bidearen zatia eraikitzeko proiektua (3.7. ibilbidea: Beasain-Ergoiena)"*. Izapidetzen ari den desjabetzearen proiektuaren gauzatzearekin jarraikortasuna ematen zaio aipatutako proiektuari, eta proiektua gauzatzen ez bada proiektua eten egingo litzateke, horrek herritarrei ekarriko lizkiokeen mota orotako ondorioekin.

Kontrako zentzuan, elegileak argudiorik ez duenez eta guri ez dagokigun gai batean nahasteko arriskua badugu ere, gure ustez akordioa gauzatzeak ez luke kalte konponezinik



edo konpontzen zailak direnik eragingo –HAAJAPeren 111.1.a) art.-, izan ere, Auzitegiek akordioa zuzenbidearekin bat ez datorrela erabakiko balute ere, ez litzateke ezinezkoa edo zaila izango egoera leheneratzea.

Ondorioz, behin eta berriro aipatutako arauak adierazten dituen ezaugarriak haztatu eta gero, abokatu honen ustea da akordioa bertan behera uztean interes orokorrari eragingo zaizkion kalteek elegileari eragingo zaizkionak gainditzen dituztela.

Ondorioak.-

Adierazitako arrazoiketa kontuan hartuta, honakoa proposatzen da:

- 1.- Aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa bertan behera uztea.
 - 2.- Kontra egindako egintza bertan behera uzteko eskaera ez onartzea.
- Bertan behera uzteko azken eskaerari dagokionez, gogoan hartu behar da zentzu horretan hartzen den erabakia, aurreko ataletan adierazitakoarekin bat badator, berariaz bete beharko dela, eskaera Lazkaoko Udalean sartu eta 30 egun igaro baino lehen; aitzitik, bertan behera geratuko da –HAAJAPeren 111.3 artikulua-.

Guzti honen aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Iñigo de Arteaga y Martin Jaunak jarritako berraztertze errekurtsoa atzera botatzea erabakitzen du, txosten teknikoan adierazitako zioetan oinarrituta.

V.- 2010EKO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak 2010eko aurrekontu likidazioaren berri ematen du, likidazio honen datu esanguratsuenen zenbakien azalpenaren bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

VI.- KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREIDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.-

Era berean Alkateak 2011ko aurrekontuari egindako kreditu txertaketa bidezko 1 zbk.dun kreditu aldaketaren berri ematen dio Osoko Bilkurari.


Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

VII.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespenean proposatzen irakurri dira.





Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	730.500 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		730.500 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VII	Kapital transferentziak	594.000 €
VIII	Finantza aktiboak	136.500 €
GUZTIRA		730.500 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VIII.- GIPUZKOAKO KONTRATAZIO ZENTRALERA ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentrala sortu eta bertara hitzarmen bidez atxikitze aukera ireki du, osoko bilkura honetako deialdiarekin batera bidalitako dokumentazioan barne, bidali den hitzarmen zirriborroaren arabera.

Serna zinegotziak (PSE-EE) hitzarmen honen bidez egingo liratekeen erosketak zeri buruzkoak izango liratekeen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio hori ez dela orain zehazteko zerbait eta nahiz eta hitzarmena izenpetu kasu emango dela prozeduran sartu nahi den ala ez, udalaren interesaren arabera.



Gaiaren inguruko argibideak eman ondoren eta Hazienda Batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzeko hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea, Lazkaoko Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan.

IX.- KIROLDEGIAREN BIRMOLDAKETAREN FINANTZAKETAREKO G.F.A.REKIN HITZARMENA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere 2011ko aurrekontuan, guztira laurehun eta hogeita hamar mila (430.000,00 €) euroko dirulaguntza izendunak esleitu ditu Lazkaoko Joxemiel Barandiaran udal kiroldegia birmoldatu, handitu eta zaharberritzea finantzatzeko. Diru zenbateko honetatik berrehun mila (200.000 €) euro 2011 urtean emango ditu eta berrehun eta hogeita hamar mila (230.000 €) 2012 urtean.

Hau honela, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena izenpetzea planteatzen da "Joxemiel Barandiaran udal kiroldegia birmoldatu, handitu eta zaharberritzea" izeneko proiektuaren 4. fasea gauzatzeko. Hitzarmen honen zirriborroa osoko bilkura honetarako deialdiareki batera bidalitako dokumentazioaren barne bidali da.

Gaia aztertu ondoren eta Hazienda Batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- "Joxemiel Barandiaran udal kiroldegia birmoldatu, handitu eta zaharberritzea" izeneko proiektuaren 4. fasea gauzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena, bere espedientean dagoena onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea, Lazkaoko Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan.

X.- BI ERROTONDA EGITEKO G.F.A.REKIN HITZARMENA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatu Kontseiluak, 2011ko martxoaren 15ean egindako batzarraldian, Lazkaomendira joateko bidegurutzean errotonda bat eta Kanpandegi parean beste errotonda bat egiteko eta bestalde Lazkaoko erdigunetik Ataun aldera bidegorria egiteko lanen finantzaketan parte hartzea onartu du, horretarako guztira bi milioi seiehun eta berrogeita bederatzi mila zazpiehun eta hirurogeita zortzi euro eta berrogeita hamar zentimo (2.649.768,50 €) jarriko dituelarik.

Hau honela, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena izenpetzea planteatzen da. Hitzarmen honen zirriborroa osoko bilkura honetarako deialdiareki batera bidalitako dokumentazioaren barne bidali da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du kanpotik datorren dirua beti ere pozik hartzen baldin bada ere, gai honen inguruko hausnarketa egin nahiko luketela eta esaten du Iturgaitzagako gunearen hirigintza garapenerako dokumentuak onartzerakoan, gune horrek zituen hiritartze zama handiak zirela eta, horiei aurre egin ahal izateko eraikigarritasuna



igo egin zela eta orain zama horren zati handi bat herri finantzaketa bidez egin behar bada, ez dakiela berriro ez ote litzatekeen berriro aztertu beharko gune horren etxebizitza dentsitatea nola gelditzen den.

Urkola zinegotziak, Hirigintza, Etxebizitza, Mugikortasuna, Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuak Batzordearen presidente gisa eta ondoren alkateak baita ere esaten du honek ez duela sustatzaileei zama jeistea suposatzen baizik eta honekin lortzen dena erroton-daren aurrerapena dela, berarentzako finantzaketa lortzen delako.

Gaiaz zabal hitzegin ondoren eta Hirigintza eta Obretako Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, gaia bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkaomendira joateko bidegurutzean errotonda bat eta Kanpandegi parean beste errotonda bat egiteko eta bestalde Lazkaoko erdigunetik Ataun aldera bidegorria egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetzea planteatzen den hitzarmena, bere espedientean dagoena, izenpetzea.

2.- Lazkaoko Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan alkatea ahalmentzea.

XI.- KIROL ZERBITZUEN INGURUKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA TXOSTENAREN ONARPENA.-

Alkateak aginduta Lazkaoko Udalaren kirol koordinatzailea den Jokin Izagirrek gaiaren azalpena egiten du. Esaten du Lazkaoko Udalaren kirol zerbitzuen inguruko hausnarketa prozesua egitea beharrezko ikusi zela eta horretarako kirolaren inguruan herriko sentibiltate ezberdinak ordezkatuta leudekeen lan-talde bat osatu zela. Lan-talde honek egindako lanaren txostenaren azalpena egiten du eta gaineratzen du txostena eta bere ondorioak udal osoko bilkura honetara ekarri direla, honek bere onarpenari buruz erabaki dezan.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, kirol zerbitzuen hausnarketa hau eta bere ondorioak onartzea erabakitzen du.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hamabi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

